AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4988

5025/2026 EBAZPENA, urriaren 29koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arabako Unibertsitate Ospitaleko (Txagorritxuko egoitza) Pediatriako gainbegiralea bere kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan, berak hala eskatuta.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen abenduaren 3ko 1899/2021 Ebazpenaren bidez, Demelza Pérez Sánchez andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko (Txagorritxuko egoitza) pediatriako gainbegirale izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan (2022ko urtarrilaren 5eko EHAA, 3. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak kontuan hartuta, Zuzendaritza Gerentzia honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Demelza Pérez Sánchez andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko (Txagorritxuko egoitza) pediatriako gainbegiralearen kargutik kentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2026ko azaroaren 11ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 29a.

Arabako ESIko zuzendari-gerentea,
ENRIQUE MANUEL BÁREZ HERNÁNDEZ.